

Xabier Sarasua

IRAULI ILDOKO ARALARKIDEA

Proze-sua, oin-arriak eta zu-bi-gintza

Hegoaldeko herritarrek Udalen, Batzar Nagusien eta Nafarroako Legebiltzarraren osaketa hautatu dute. Normalizaziorantz urratsa ematea espero genuen, baina Bata-suna eta PSOEren arteko negoziaketek porrot egin dute eta, ezker abertzale ortodoxoa (EAO) hauteskundeetan aurkezteko nola-halako egoerara iritsi da. Kurioso da biek ala biek jaso dituztela emaitza onak. Biek izan dute “prozesua” kanpainako gai nagusi, eta bata bestea elikatu du. Jokoan herritarren bizimoduaren nondik norakoa jartzen dituen hauteskundeak izan arren, horren orde z prozesuarekiko jarrera bat ala bestea ipini dutenak izan dira garaile nagusi EAEn.

Niretzat pozgarria izan da, hala ere, EAOk jaso duen gorakada hori. Ez bake eta normalizazio prozesuan jarraitu duen estrategiarekin inondik ere ados nagoelako, Anoetan hasi eta –nola edo hala– gaurdaino jarraitu duen norabideari emandako babes modura interpretatzen dudalako, baizik. Duela lau urte Batasunak zuen diskurtsoa atzo arte izan duenaren oso bestelakoa zen, eta orduan EAOk emaitza kaskarrak izan bazituen, oraingoetan askoz babes handiagoa jaso du. ANVk ere “prozesuaren aldeko botoak” eskatuz egin du kanpaina, ezkerreko alderdi batzuek ongizatearen banaketa justuagoaz, bestelako garapen ereduaz eta herritarren parte-hartzeaz hitz egiten zuten bitartean.

Baina hara non, “udaberri berria”z hitz egiten zutenek prozesua hautsita



DANI BLANCO

dagoela dioten, kasik biharamunean, bat-batean tximistak jota hautsi balitz bezala; eta hara non, ETAk su-etena hautsitzat ematen duen, ANVren aldeko botoek borroka armatuarekin jarraitzeko indarra ematen diotela esanez. To! Hori al zen “prozesuaren alde” hitzekin esan nahi zutena?

Egia aitortzeko, batzuk ez gara asko harritu. Beste behin ere ziria sartu diotela pentsatu duen tertuliakide, kultur gile eta gainerako jendea engainatuak sentitzen direla esaten entzungo banu, orduan bai harrituko nintzateke. Izan ere, adiskide batek berriki esan bezala “hotz egiten baitu tributik kanpo”.

Baina hotzik gehien haize lekuetan egiten du, zubietan bereziki. Eta hala ere, zubigintzan jardun beharra dago. Hasteko, herritarrek EAJren kudeaketa eta garapen ereduai ezetz esan dietelako hamaika herritan, eta horietan aldaketarako gobernuak osatzen saiatu beharra daukagulako ezker abertzaleko indarrok. Zubi orok ordea, oinarri sendoak behar ditu, eta elkarlan horiek ere boto guztiak aintzat hartzea eta elkarbizitzarako jarreraren aldeko konpromiso argiak beharko dituzte, eta oinetara harririk ez botatzea.

Badugu zubi handi goen beharra ere, Jose Elorrietak dioenaren ildotik. Baina horretarako, eskuliboki bide politiko hutsen hautua egitea da oinarri posible bakarra. Sufrimendu guztiak gogoan, zenbat eta lehenago hobe. ■



Herritarrek EAJren garapen ereduari ezetz esan diote hamaika herritan, horietan aldaketarako gobernuak osatzen saiatu beharra daukagu ezker abertzaleko indarrok



TXANDAN

Andoni Mujika



Obligazioaren dimentsioa pertsonarentzat maldizioa da, gure eskal kultura kolektibotik jaso dugun

herentzia lorrinenetakoa. Izugarritzko gatazka eragiten dio bere bizitzaren kudeaketan eta orekan. Hona adibide esanguratsu bat: pertsona *euskolabeldunaren* desafioak. Errito euskaltzale/abertzaleak ailegaten direnean, urteko zita *basque-laikoak*, pseudokoherentzia ariketa kurioso injeniatzen du *ardi latxa humano* gizagaixoak. Zeregin konplikatu samarra jartzen zaio aurrean: nola kudeatu label punturik ez galtzea

Ibilalditik Urratsera

gazte eta majo beren publiko-zaletasuna eta euskalzaletasuna uztartzeko formula asmatu dutenak. Hala, bake ideologikoa erdietsi dute ikastoletako jai batzuetara joanez, eta beste batzuetara ez. Nafarroara bai, Iparraldeko hirugarren mundura bai, baina Araba, Gipuzkoa eta Bizkaira, ez. Injenieritza ideologikoak apur bat gehiago korapilatzearen, esango diet, EAeko ikastola barik, herri ikastola barik, ezingo litzatekeela Nafarroa eta Iparraldekoa sostengatu. Hori zientzia da. ■